

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Hiriberri



Aurkibidea

Udalerria: Hiriberri

Sarrera



Nafarroa ipar-ekialdean kokatzen da, Zangozako merindadearen ipar-ekialdean, Aezkoako ibarrean. Orbaizeta eta Orbararekin egiten du muga iparraldean, Jaurrietarekin ekialdean, Aria eta Ariberekin mendebaldean, eta Garaioa eta Abaurrepearekin hegoaldean. Abeltzaintza, basoa eta labore- eta patata-laborantza dira bizibide nagusiak. Adineko gehientsuek badakite euskaraz. 1936. urte arte herriko ia guztiak euskaldunak ziren. Herriko zenbait etxetan oraindik aritzen dira aezkeraz. Bestalde, herriko gazteak (25/30 urtetik beherakoak) euskaldunak dira ere derrigorrezko ikasketak D ereduan egin dituztelako.

- **Biztanleak:** 129
- **Euskaldunak:** %54,26

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **9**
- Zintak: **11**
- Pasarteak: **16**
- Transkribatutakoak: **1**
- Audioak: **2**
- Bideoak: **14**

Proiektuak

- Alex Artzelus Mujika
- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Koldo Artola: Ziorditik Uztarrozeraino
- Solstizioen inguruko ospakizunak Nafarroako zenbait hizkeratan emanak

Hizlariak

Faustino Antxo (1940)



Hiriberrin jaio eta bizi. Ezkongabea. Abeltzaintzatik bizi izan da. Gerra denborara arte denek egiten omen zuten herrian euskaraz, baina harrezkero, beldurragatik edo, galduz joan zen. Gurasoekin beti euskaraz. Iparraldera sarri joaten da azoka, erosketa eta horrelakoengatik eta han praktikatu izan du batez ere euskara.

Anjel Antxo Moleres (1931)



Laboraria eta abeltzaina. Ezkondua da eta lau seme-alaba ditu. Gaztetan Suitzan eraikuntzan jarduna. Behorak izaten ditu mendian. Emazteak ulertzen du euskaraz baina ez du egiten. Seme-alabek ez zuten ongi ikasi baina baten batek berreskuratu du. Iloba batekin euskaraz aritzen da.

Mari Carmen Arrese Bidart



Aezkoako Hiriberrin jaio eta bizi. Ama lholdikoa, baina bi urterekin Hiriberrira etorria.

Julian Arrese Urrutia (1908)

Aezkoako Hiriberrikoa. Gurasoak ere bertakoak zituen. [Mariana Bidart](#) koinatarekin batera egin zitzaion elkarriketa.

Mariana Bidart Reka (1912)

Nafarroa Behereko lholdin sortu zen, aita bertakoa baitzuen, baina 21 hilabeterekin Hiriberrira eraman zuten. Ama zen Hiriberrikoa. [Julian Arrese](#) koinatuarekin batera egin zitzaion elkarriketa.



Angel Burusko (1943)

Hiriberrin jaio eta Hiriberrin bizi. Artzaia eta laboraria.



Andres Burusko Antxo

Hiriberrin jaio eta bizi. Laboraria eta abeltzaina. Garai batean patata asko ereiten zuten. Behi pirinaikoak ere izan ditu. Ardirik ez.

Jose Luis Erremondegi Eginola Landa (1951)



1951an Hiriberrin jaioa, Landa etxean. Gurasoak bertakoak zituen, laborariak: ama etxekoa, eta aita Urrutia etxekoa. Jose Luis laboraria da eta arreba zaharrago bat du. Aiton-amonak euskaldunak zituen eta horrela ikasi zuen berak ere, baina Nafarroa Behereko Garazi-aldeko artzainekin eta abarrekin harreman handia izan duenez, haien hizkeraren alderdi batzuk ere sumatzen zaizkio (bai eta beste toki batzuetakoak ere). Hiriberriko euskararen galera- eta berreskuratze-prozesuaren berri eman digu, baita bertako bizimoduaren zenbait alderdirena eta Iparraldearekin duen eta izan duen harremanarena ere.



Maria Galduroz Ilintxeta (1940)

Aezkoako Hiriberrin jaio eta bizi. Senarra Espartzakoa, Zaraitzukoa; zerbait ulertzen omen du euskara.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Iparraldeko euskara berdin-berdina (HIR-001/002)

Behorrekin udaberrian Iparraldeko mendietara joaten ziren. Libre zen muga pasatzea. Donibane Garazi aldean euskara berdin-berdina egiten dute.

2. Iratiko basoan lanean (HIR-001/003)

Iratin ibilia da basoan lanean. Bagoak eta izaiak botazen "sega"rekin (trontza-zerra).

3. Azpeitiko euskara ongi ulertzen du (HIR-001/004)

Alabaren senarra azpeitiarra da eta egon izan da herrian. Alaba-eta Azpeitiko festetan nola izan diren kontatzen du. Ongi ulertzen du Azpeitiko, eta oro har Gipuzkoakoa. Bizkaikoa ez. Zuberoako ere zaila egiten zaio.

4. Gutxi euskaraz Hiriberrin (HIR-001/005)

Euskara gutxi egiten da Hiriberrin. Gazteak ikastolan ikasi dute, baina hala ere asko dira ez dakitenak. Euskara batua belaunaldi berriek. Ilobari ez dio anitz gauza konprenditzen.

5. Etxean beti euskaraz (HIR-001/006)

Adin nagusikoekin beti egiten zuen euskaraz. Etxean ere gurasoekin eta anai-arrebekin, baina hauek, nagusitu zirenean hortik zehar joan ziren guztiak.

6. Zuketa, Xuketa eta hiketa (HIR-001/007)

Jende handiari zuketan, hurrei (edo emazteari) xuketan eta lagunei hiketan.

7. Suitzan lanean (HIR-001/008)

Zurich inguruan eraikuntzan lanean ibilia. Italianoz konpontzen zen.

8. Xuketa nola egiten den (HIR-001/009)

Zuketaz azalpenak. Haur bati xuketaz nola egingo liokeen.

9. Gerra ondorengo arrazionamentua (HIR-001/010)

Garia kontrolatuta zegoenez, Iparraldetik arto-irina ekarri eta taloa jaten zuten. Taloa nola erretzen zuten.

10. Etxeko elikadura (HIR-001/012)

Zer haragi jaten zuten: iloak, oilaskoak, axuriren bat noizik behin, "txerri bi hiltzen ziren "Zubillaroan", eta garai batean iparraldetik ekarritako behikia ere bai.

11. Seme-alabek ez zuten euskaraz ikasi (HIR-001/014)

Seme-alabek ez zuten ikasi, nahiz eta zaharrenak gero berreskuratu duen. Iloba batekin euskaraz egiten du.

12. Lexikoa (HIR-001/016)

Esaldi batzuen euskarapena. Asteko egunen eta hilabeteen izenak.

13. Behorrek ditu mendian (HIR-001/017)

Goizero behorren ikustera joaten da. Urrian "sarioetara", esparruetara jaisten dituzte

14. Gazteek ez dakizkitez tokien izenak (HIR-001/019)

Kexu da gazteek ez dakizkitelako toki-izenak. Oskia, Pettiberro, Berrendi, Abodi... aipatzen ditu

15. Eguberrietako giroa Hiriberrin (HIR-010/001)

Eguberrietako giroa Hiriberrin.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com